

JOXEMIEL BARANDIARAN: HILARRI BATEN INGURUKO BURUTAPENAK

“Por otro lado, en Sara y en Hendaya hay unas piedras, hoy olvidadas o consideradas a niveles casi folklóricos o de curiosidad local, que tallaron manos vascas guidas por un conomiento cosmográfico universal”. (Shanti de Oarso, OARSO aldizkaria, 4 zenbakia, 1980)

Aita Joxemiel Barandiaran 1991ko abenduaren 21ean hil zen, 101 urte bete zituela. Bere heriotzarekin batera, garai bat bukatu eta beste berri bat zabaldu zitzaigun. Oso zaila izango da euskaldunontzat haren presentzia eta laguntzarik gabe ibiltzen ikastea bera baitzen lehengo eta gaurko gizartearen uztartzaila, euskal arima tradizionalaren lekuko eta interpretatzaile nagusia, euskal tribuaren apaiza, agure jakituna.

Heriotz unerako prestatu-rik zegoen. Kristau bezala, konfidantza osoa zeukan hil ondorengo betirako bizitzan, eta euskal izakia arakatu duen ikertzaile bezala ere, bazekien bizion artean pizturik gertzen dela hildakoaren garra. Hau jakinda, prestatu-rik utzi zuen dena, baita hilobian ezarri behar zitzaion hiliarria ere. (Ikus 1 irudia)



1 IRUDIA: Joxemiel Barandiaranen hilobiko hiliarria. Atan.

HILARRIA EUSKALDUNEN ARTEAN

“La estela funeraria o piedra enhiesta en la cabecera de la tumba, es llamada generalmente ilarri “piedra difuntos”;... La estela es hoy todavía símbolo, sujeto y soporte de un mundo de creencias y de una actitud humana vinculada a un ideal que trasciende esta vida terrena. Forma parte de un sistema religioso en el que el respeto a los antepasados desempeña papel importante, y sólo en él sería comprensible”.

(J. M. Barandiaran, “Estelas funerarias del País Vasco”, 1980)

Barandiaran ikertzaileak S. Martingo trikuharrian aurkitu zituen harriek, eta cromlech eta zutarrien inguruan burutu zituen ikerketek garbi azaltzen digute nola euskaldunen artean hilarriaren erabilpena historiaurre garaian hasi eta gaurdaino nolabait mantendu den, garai eta momentu bakoitzen egon den pentsamoldera egokiturik.

Bestalde, Barandiaran etnografoak, heriotzarekin loturiko mito, errito eta ohiturak aztertu ondoren ikusi zuen nola *etxe* hitzak, euskal pentsamolde erlijioso-sozialean, *etxea* bera, lurrak eta hilobia biltzen dituen bere baitan. *Etxea* tenplu eta hilobi izan bazen, kristautasunarekin funtzio hau elizera pasako da, eta azkenik egungo kanposantura. Beraz, hilarria *etxearen* luzapena baino ezta, hildakoei *etxe*ko babesza balduko diena.

BARANDIARANEN HILARRIA, OHITURA ZAHARREI LOTURIK


Baina honetara ekarri gaituena ez da hilarrien mundua izan, orokorrean behintzat. Lerro hauek idaztera bultzatu gaituena hilarri jakin bat izan da, Barandiaranek bere gorputza ehortzi behar zuten hilobirako pentsatu zuen hilarria, hain zuzen. Berak diseinaturik, ez dago Euskalerrian hori bezalako beste hilarririk, zenbait osagaiei dagokinez behintzat.

Eta hala da, hilarririk ez, baina bai oster, bertan azaltzen diren osagiak, batzuk arras arruntak, eta besteak, berriz, ezer gutxi eta inguru esoteriko jakin batean erabiliak, inguru sakon eta ezkutua, sinbolismoz josirik.

Hilariaren morfologia edo itxura hilarrien artean ohizkoa da. *Harrizkoa*, harriak arimarekin lotura handia baitu. Iraunkortasuna harriaren ezaugarriarik behinena da, arimarena bezala. Arimak gorputza galdu ondoren behar izaten du finkotasuna harrian aurkituko du, haren euskarria bilakatuz. Jean Chevalier-ek esan duen bezala, “Gizakia jainkoarengandik sortu da eta Jainkoarengana itzultzen da. Harri landu gabea ortzitik (zerutik, alegia), jeisten da; eraldaturik, haruntza jeikitzen da”. (J. Chevalier, “Dictionnaire des Symboles”, 1969). Ikuspegi hau erroturik dago euskal pentsamolde tradizionallean. Ez zaigu asko kosta tximistarri eta oneztarri hitzetan, —tximistarri buruz ari garela— Chevalier-ek aipaturiko zentzu hori antzematea.

Harrizkoa esan dugu, eta gainera *antropomorfoa*, gizaki itxurakoa, burua eta soina, gorputzaren goialdea, gizakiaren irudi iraunkor gisa. Bustoa erabilia izan da kultur eta garai ezberdinetan hildako pertsona baten izaera bilduko duen sostengu bezala.

Gorago aipatu dugun legez, hilarria etxeari loturik dago. Etxea gune sakratua da, eta honengatik babesturik dago: bedeinkatutako suaz, solstizio garaian bedeinkatutako ur, erramu edota lizar adarrez. Ez dira bizidunak soilik babes honen beharrean aurkitzen direnak, hildako senideen arimak ere behar-beharrezko daukate etxearen babesa. Kristautasunak antzinako sinismenak kristau liturgiara egokitu zituen eta, ondorioz, hildakoen babesa elizako jarleku-
 ra lehenengo eta hilerriko hilobira gero pasatu zuen, beti ere etxearen gereizpean. Bai jarlekuak bai hilobiko hilarriak ere, hasiera batez behintzat, etxearen izena zeramaten idatzirik. Barandiaranek, zentzu honi helduaz, bere hilarriaren enborrean idatzirik utzi du: "SARA'KO ILLARRIA", SARA bere Ataungo etxearen izena izanik.



2 IRUDIA: Sarako gurutzea.

BARANDIARANEN HILARRIA, ESOTERISMOAREN INDARPEAN

Honeraino, On Joxemiel bere hilarria gauzaterakoan ez da gainontzeko hilarrietatik asko urrundu, ez azalean ezta mamian ere, erabat identifikaturik ikusten baitu bere burua Euskal Herriko ohitura eta sinesmenekin. Berak ere, lehen arotzek, zurginek, pilotariak, eta abarrek egin duten bezala, hilarriaren buruan gauzatu nahi izan du bere pentsakera eta izaera propioa, eta hain zuzen hemen datza bere hilarriaren originaltasuna: gurutze batek hilarriaren alde biribila lau laurden berdinetan zatitzen du, laurden bakoitzean "a" hizkia agertzen delarik.

Barandiaranek bere bizitaren hamahiru urte Lapurdiko Sara herrian egin zituen herbesteraturik, eta horrek berebiziko eragina eduki zuen bere bizitzan. Ataunera aldatu zenean, Saran bizi izan zen itxura berdineko etxe bat egin zuen eta "Sara" izena ipini zion. Era berean, Sarako kanposantuan dagoen gurutzearen oinarrian azaltzen den irudiak nolabaiteko erakarpina eragin zuen harengan eta bere hilarrian ipini. (Ikus 2 irudia) Zer ikusi zuen irudi horretan? Honela azaldu zuen berak:

“La gran cruz de piedra que se halla en el cementerio, delante de la puerta meridional de la iglesia parroquial, es un raro ejemplar de su género. en una cara de su pedestal prismático muestra en relieve una cruz inscrita en una O y la letra A en cada uno de los cuarteles. Diríase que el escultor tuvo la intención de representar al “crucifijo” como “alfa y omega” —principio y fin— de todas las cosas”. (J. M. Barandiaran, *Obras Completas*, V, 145 orr.).

Itxuraz, galderak bere erantzuna izan du. Kristau eta apaiz bezala, Barandiaranek irudi horretan alfa eta omega ikusi zituen, Jainkoa alegia, gauza guztien hasiera eta amaiera. Alfa A hizkietan azaltzen zaigu, eta omega gurutzea inguratzen duen O irudian. Bestalde, gurutzea Jainkoa da eta sufrimendua ez ezik heriotzarekiko garai-pena suposatzen du.

Honela ulertzen du Barandiaranek —eta iritziz aldatu zuenaren berririk ez dugu izan— irudi horren egilearen asmoak baina benetan harrigarria iruditzen zaigu deskribatzen duen Sarako gurutze hau *Hendai*an dagoen eta ezagutzen zuen gurutzearekin ez erlazionatzea. (Ikus 3 irudia) Hendaiako gurutzea, Sarakoaren antzekoa baina irudien eta idazkien aldetik askoz aberatsagoa eta osoagoa da. (Ikus OARSO aldizkaria, 3 eta 4 zenbakiak).



3 IRUDIA: Hendaiako gurutzea.

Fulcanellik, idazle hermetikoa, “Le mystère des cathédrales” liburuan oharrarazten digu lehen aldiz Hendaiako gurutzeaz, eta honen interpretazio erabat esoterikoa egiten du. Berak dionez, gurutze hori herriko hilerrian kokaturik omen zegoen 1842. urtera arte, zein eliz ondora eramana izan zen, egun dagoen lekura.

Noiz eta zeinek egin zuen inork ez daki zehazki. Fulcanelliren ustez, XVII. mende bukaeran edo XVIII. mende hasieran egin zen akaso, eta egilea, dionez, ez zen oso hargin trebea baina jakituri sakonaz eta benetako eza-guera kosmografikoaz jantzi-rik zegoen (Shanti de Oarsok, OARSO aldizkarian dionez, XVIII. mendeko Joan Cruz de Echeberry euskal alkimista gurutze honen inspiratzailea izan zitekeela planteatzen du).

Gurutzeak bi zati ditu, bata gurutze bera, eta bestea gurutzea eusten duen oinarria. Gurutzean, *Venancio Fortunato* VI. mendekoa den poetak sortutako himno bati X. mendean erantsi zitzaion esaldia grabaturik dago: *O crux aves pes unica*. Ondo idatzirik balego, zera esan nahi zukeen hitzez-hitz: Agur Gurutze, itxaropen bakarra. Halabaina, esaldia ez dago zuzenki idatzirik (S hizkia lekuz aldaturik baitago), eta ez dirudi bidezkoa harginaren oker bat denik pentsatzea ez baitu zuzenean zizelatzan aurretik zizelatu behar duena prestatu gabe. Beraz, harginak, idazkera hermetiko eta izkutua erabiliz, beste modu ezberdinez irakurtzeko aukera eman nahi izan du. Gurutzea bere osotasunean hartuz, diplomatikaren arauak erabiliz, eta ezauera sakonaren laguntzaz, esaldia modu honetan irakurriko genuke: Idatzirik dago bizitza gune bakar batean babesien dela. Eta honela, Fulcanelliren aburuz, hondamendiaren garai ika-ragarria datorrenean, heriotzak gizakia harrapatuko ez duen leku bat existitzen dela jakiten dugu.

Oinarriak lau aurpegi dauka. Batean izar itxurako irudia, artizarra seguruenik, bestean ilargia, hirugarrenean eguzkia, eta azkenik, laugarren aldean Barandiaranek bere hilarrian ipini duen bezalako irudia.

Gurutzea sinboloa osoa da. Bi ardatz nagusiak elkartzerakoan orientazioaren gurutzea sortzen da, besoak lau puntu kardinaletara zuzendurik, orientazio sinbolo guz-tien oinarria bilakatzen da, zerua eta lurra elkartuko duena, bertan denborak eta espazioak bat egiten dutelarik.

Hendaiako gurutzea gaur egun San Bizente parrokiaren hegoaldeko ate ondoan kokaturik dago, baina seguruenik ez dago kanposantuan zegoen orientazio berberan. Jatorrizko kokapenean, gure ustez, gurutzearen esaldia eta eguzkiaren irudia ekialdera begira egongo litzateke, egun-sentira begira hain zuzen. Ondoren, mendebaldera eta ilunabarrera begira artizarraren irudia. Ilargia, hegoaldera eta eguerdira. Eta azkenik, hona ekarri gaituen irudia, *lurra* izango litzateke eta iparraldera eta gauera orientatuta le-goke.

Sarako gurutzea Hendaiakoaren sinplifikazioa da, gurutzea —esaldirik gabe— eta Barandiaranen hilarriko irudia izango dena baino ez baitu bertan bildu. Gainontzeko osagaiak bazterturik geratzen dira, bai irudiak baita orientazioa ere. Barandiaranek, gorago aipatu dugun bezala, ezagutzen zuen Hendaiako gurutzea (*Obras Completas*, III, 487 orr.), baino ez zen interpretazio-rik ematen ahalegindu. Ez dugu du-darik bere hilarriarentzako irudi hau aukeratzeko (ikus 4 irudia) Sarako gurutzean oinarritu zela eta, beraz, bera-



4 IRUDIA: Hendaiako oinarriko atzekaldearen irudia.

rentzako, irudi honek alfa eta omega azaltzen duela, eta erdi-erdian berpizkundearen gurutzea. Baina, zergatik lau A, alfa adierazteko bakarra nahikoa baldin bada?

Barandiaranek emandako interpretazioak ez digu argirik ematen. Hendaiako gurutzearen laguntzaz eta sinbolismoaren ildotik, interpretatzeko eta ulertzeko beste bide bat zabaltzen zaigu, irudietan eta esanahietan aberatsa. Hendaiako gurutzearen oinarrian irudi astrologikoak ikusi ditugu: eguzkia, artizarra, ilargia, eta azkenik, lurra irudikatzen duen irudia. Sinbologian, *Koaternarioa, eta lau A azaltzeak iritzi hau indartzen du*, lurrari dagokio. Naturan eta erlijioan ordena koaternarioa edonon aurki genezake: badira lau puntu kardinalak, lau urtaro, lau osagaiak (ura, sua, airea eta lurra), lau humore (odola, pituita, bilisa eta atrabilisa), gurutzeak lau beso ditu, lau ebanjelari...



5 IRUDIA: XII. mendeko miniatura Arte alsaziarra.

tatik pasatzen da: urrea, zilarra, brontzea eta burnia. Burni-aroaren amaieran hondamendia dator eta urre-aroaren zain geratzen da mundua. Mikrokosmoan ere, gizakiaren bizitza lau aroetatik pasatzen da: haurtzarora, gaztarora, heldutasuna eta zahartzarora.

Erdi Aroan, ziklo hau, lau ebanjelarien bitartez irudikatzen zen, hasiera batean alfa hizki grekoaz adierazten bazen ere gero eta gehiagoz ebanjelioko lau animalien bitartez, tetramorfoaz hain zuzen, azaltzen zen.

KONKLUSIOA

On Joxemiel Barandiaranek ez zuen irudi hau arinki aukeratu. Bi arrazoi izan zuen erabaki hori hartzeko, guru iritzi:

A hizkiak, beraz, munduarekin loturik egon behar duenaren ikurra dugu. Grekerako "Arkhe" hitzan aurki genezake A hizkiaren esanahia. "Arkhe" elementua edo lehen gaia esan nahi du. Zenbait filosofo greziarrek, eta batez ere Enpedokles filosofo presokratikoak, "arkhe" hori oinarritzko lau osagaiekin identifikatzen zuten: *airea, sua, ura eta lurra*. (Ikus 5 irudia). Elementu hauek bizitzarekin lotura estua daukate eta beraien artean mugimendu zikliko bat gauzatzen da: uretan sortu eta, airea eta suetik pasa ondoren, lurrean bukatzen da.

Antzeko zentzu ziklikoa aurki genezake A hizkiari "arkhe" baino Aroa hitzaren esanahia ematen badiogu. Mundua lau aroetatik pasatzen da:

a) Lapurdiko Saran bizitutako urteek berarengan utzi zuten marka.

b) Bere bizitzari zentzua eman diona hilarrian azaldu nahi izan du. Bera kristau ortodoxoa izan zen bizitzan eta heriotzean ere halakoa agertu nahi izan du.

Hilarrien erabileran ohizkoa izaten zen hilobiratuaren tresnak irudikatzea. Dударik gabe, On Joxemiel Kristozale zintzoa ez ezik, apaiza zen eta bere lana Jainkoaren hitza ebanjelioen bitartez zabaltzean zetzan. Hau ederki irakurri dezakegu bere hilarrian, baina baita ere, ez ohizko gizaki bezala, nahita edo nahi gabe, tradizio zabalago eta izkutuago batekin sintonian bizi izan zen.

Bere hilobiak, —Sara etxea eta San Gregorio elizarekin bat eginik—, kanposantuko gainontzeko hilobiekiko orientazio ezberdina dauka, apika, bere bizitza izan zenaren ikurtzat gera daitekena.

IÑIGO ETXEBESTE

